
txintxarri

1996ko urriaren 24a Lasarte-Oria 69. Zenb.

Badator, badator Maratoia!




ORMAZABAL

AZAROAREN 1a, SANTU GUZTIEN EGUNA.

LORADENDA OPARIAK

Nahi izanez gero, loreak kanposantu berrira igoko dizkizugu.

Egun berezi horretarako behar duzuna:lore natural edo artifizialekin



Kom.: D. Sanchez eta D. Lopez.

Marrazkiak ongi baino hobeto adierazten duen giroa lortuko dela pentsatzen dute antolatzaileek ,prestatutako ekitaldiak oso erakargarriak dira eta.

40 ordu euskaraz herrian: gozoz, noski!

Nerea Navarro

48 ordu barru Okendo plaza erabat transformatuko da: 12 metro luzeran eta 8 metro altuerako oholtza batetik 2.000 pertsona inguru igaroko dira 40 orduetan. Goizeko zortzietan San Pedro elizako kanpai-hotsek, suziriek eta txalaparta hotsek hasiera emango diote Euskararen IV. Maratoiari.

Une hauetan, ziurrenik, herriko hainbat talde azken entsaioetan ibiliko dira, azken ukituak ematen euren emanaldiei, antolatzaileak ere azken orduko urduritasunak lasaitu nahian ibiliko dira.

Dena prest dago. Ziurtatuta ez dagoen gauza bakarra eguraldia da. Entzutekodago zer iragarriko duten telebistan, irratian edota egunkarietan. "Eguraldiak eragin handia izan dezake, baina herritarrek Maratoian duten inplikazioak indar handiagoa du. Eguraldi txarrarekin ere Maratoiaren mezua herri osora zabalduko delakoan gaude". Horixe da antolatzaileek pentsatzen dutena. Ttakun K.E. maiatzean Maratoia antolatzen hasi zenetik herriko elkarte eta talde askorekin jarri da harremanetan bakoitzak lekutxo bat izan dezan Euskararen jai honetan. Guztira, 40 talde inguru dira, "azken batean, horiexek dira Maratoiaren oinarria: herritarrak. Lasarte-Orian jaia izatea nahi dugu. Laugarren aldiz, 40 ordutan zehar hizkuntza –euskara– elementu bateratzailea izatea lortu nahi dugu".

Gaztetasuna

"Esperientziak erraztu egiten du antolaketa era batera edo bestera egitea.

> "Aurreko maratoietako kalitatea eta pisua mantentzeaz gain, gazte jendeak pixu handiagoa izango du, Maratoiaren mezuaren erreleboa hartuz"

Gainera, aurten jende gazte asko sartu da antolaketa-lanak egitera eta gaztetasun hori antzematen da". Eta hori argi eta garbi ikusten da zortzikotearen partaideetan, "bi irizpide daude zortzikoteko partaideak aukeratzeko. Alde batetik, irizpide pertsonalak: euskaltzalea izatea, hizkuntz gaitasunak izatea, artista sena edukitzea, etab. Bestetik, irizpide kolektiboa dago. Horretan, zortzikotea adin desberdineko jendeak osatzea kontuan hartzen da, baita pentsakera desberdineko jendea izatea ere eta orain arteko partaideen eta berrien arteko oreka izatea. Dena den, ez dira irizpide matematikoak, orientatiboak baizik". Aurtengo zortzikotearen alde erakargarria antolatzaileen esanetan hauxe da: "Aurreko Maratoietako kalitatea eta bizitasuna mantentzeaz gain, gazte jendeak pisu handiagoa izango du, Maratoiaren mezuaren erreleboa hartuz".


Maratoiko aurpegiak




Aiora Zulaikak 21 urte ditu eta Arte Ederretako 4. maila egiten ari da, "beno, 40 orduei aurre egiteko zer gingo dudan? Gauza berezirik ez. Fisikoki eta psikikoki prestatuta nago. Gogo handia dut maratoiarekin hasteko eta indarrak ere punttu-punttuan ditut. Ez, kaferik ez dut hartuko, ez dut behar. Gogoak mantenaraziko nau zutik". Maratoiko zortzikotea izateak ez du besterik gabe oholtzaren gainean egotea esan nahi eta kasu honetan Aiorak antzezpenerako gaitasuna azalduko du.



Natxo Izetak 39 urte ditu eta abokatua da. Berak dioenez, nahikoa deskantsatuko du herrira etortzean, "giroz aldatzea nahikoa izango da Maratoirako prest egoteko. Bai, kafe pittin bat hartu beharko dut. Batez ere, goizean eta bazkalostean". Ezin izan du gertutik jarraitu Maratoiaren prestaketa lan-arazoengatik, baina ondo informatuta dago: "Lehengo batean Jon Iñaki Elexpuruk zera esan zidan, 'gaua kristorena zetorrek'. Beraz, prest egongo naiz".



Jon Iñaki Elexpuru, 30 urte. Udal kiroldegiko langilea da. "Aurretik ere badut esperientzia, horregatik ez dut ezer berezirik egingo deskantsatzeko. Kafea hartu? Ez, ez dut kafea beharrik esna egoteko. Gainera, deskafeinatua nahiago dut". Aurreko maratoian arrakasta handia izan zuen Agustkin Mugikarekin batera egiten zuen Teo eta Txarles umorezko emanaldiarekin. Aurten ere adi egon beharko dugu prestatzen ari diren umorezko emanaldia ez galtzeko.




Harkaitz Izagirrek 17 urte ditu, UBIko ikaslea da. 40 orduko Maratoiari aurre egiteko aldez aurretik lo asko egingo duela dio, nahiz eta aurreko egunean gauez ezkontza izan. "Kafea hartu? Beharko. Nik ere ez dakit nola aguantatuko dudan. Ikusiko dugu". Harkaitzek ere ez du denbora handirik izango etxean lasai-lasai egoteko. Izan ere, maratoia dela eta, leku batetik bestera dabil: bilerak, azalpenak, argazkiak atera, kazetariei kasu egin...




Agustin Mugikak 36 urte ditu, "zoritxarrez" berak dioen bezala. Irakasle eta pailazo animatzailea da. Maratoiaren aurretik prestaketa lanetan ibiliko da, kantak lantzen... Maratoia iristerako Agus konzentratuta egongo da. Izan ere, "6 urte daramatzat herritik kanpo bizitzen eta eguneroko dinamikatik aparte nago". Kafearen beharrik ez du izango, "agian, patxaran pixkat bat hartuko dut, baina garrantzitsuena burua erne izatea da. Pozaren mobidan bai, baina erne".




Mari Jose Eizmendik 43 urte ditu eta herriko Euskadiko Kutxako arduraduna da. Maratoiaren aurreko egunean beste egunetan baino lehenago oheratzen saiatuko da, "bai, lehentxoago joango naiz ohera ondo deskantsatzeko. Kafea? Bai, noski. Kafesnea batez ere, gehiago gustatzen zait eta. Oholtzara inork ekartzen ez badit, nik alde egingo dut aurreko tabernara kafesne bero-beroa hartzera".



Iñaki Alkaldek 23 urte ditu eta kazetaritzan lizentziatu berria da. Maratoiaren aurretik ez du denbora asko izango etxean lasai-lasai egoteko, "ez dut uste geldirik egongo naizenik. Malabareak prestatzen ari gara eta oso iaioa ez naizenez lan asko egin beharko dut, igande goizeko krosean ere parte hartuko dut, futboleko entrenamenduak ere ezin ditut utzi... Urduri xamar nago, baina indarrez beteta". Ez du kafearen beharrik izango ez du eta kafea hartzeko ohiturarik.



Jose Mari Agirretxe, 32 urte, lanbidez irakasle eta pailazoa da. Ez du ezer berezirik egingo Maratoia prestatzeko, denborarik ez duelako. Zortzikoteko partaidea da laugarren aldiz, "hasieran oso zorrotzak ginen, 40 ordutan ia oholtzatik jaitsi gabe egon ginen, baina azkenengoetan lasaitu egin gara zertxobait. Garrantzitsuena ez da zortzikotea 40 ordutan zutik egotea. Herritarren parte hartzea da inportanteena, gure lana koordinatzea da, baina pisu guztia gure gain utzi gabe".



Lekukoa harria baino zerbait gehiago da. Esanahi handiko eskultura hau Lasarte-Oriako egoeraren isla da: banatuta dagoen herri baten errealitatea -harriaren erdiko zuloak adierazten duen bezala-. Baina errealitate banatu horren batasunerako elementua euskara izan daiteke eta horixe da harriaren erdiko eraztun modukoaren esanahia. Ideia horren bultzatzailea Agustin Mugika izan zen eta Aian gorpuztu zen. Ideia hori hartuta osatu dugu orrialde hau. Izan ere, urriaren 26-27an egingo den Maratoian jende desberdin ugariren laguntza eta parte hartzea izango da. Guztiak azaltzea ezinezkoa denez, multzo handi horretatik batzuk aukeratu ditugu.





Gabriel Iñigo
Casa Extremadurakoa

Extremadura aldeko kalderete goxo bat prestatuko diegu zortzikotekoei. Ardi-haragi eta patatekin eginiko gisatua egingo dugu bi edo hiruren artean. Extremadura aldeko artzainek jaten zuten ohiko kalderetea da.




Rose Nyland
Urrezko neska

Hollywoodeko estudioetan Lasarte-Orian euskararen IV. Maratoia egin behar duzuela entzun dugu. Beraz, hegazkina hartu eta bertan parte hartzeko prest izango gara Sofia konbentzitzen badugu, behintzat.




Elena Ginea
Tximua K. Z.

Tximua Irratiak etxean gelditzen direnentzat IV. Maratoia zuzenean erretransmitituko du 40 orduetan etengabe. Beraz, urtean zehar lan egin ez arren, maratoiaren alde 106,5 FM sintonian entzun ahal izango gaituzue.



Alex Tetuan
Kirolaria

Eberesteko proban parte hartuko dut nik. Ez dakit, baina ziur asko gaueko erreleboren batean arituko naiz. Orain, nirekin batera ateratzeko lagunen baten bila nabil eta ez dakit nor engainatuko dudan!



Bandoleroa
Mexikarra

Afari mexikarrean adi ibili eta kontuz gurekin! Nork daki zer gerta daitekeen. Ezusteko asko izango da. Abisatuta zaudete. Maratoia gure egingo dugu. Inor ez dadila saiatu kontra egiten, bestela...



Asier Barbero
Euskaltegiko ikaslea

Euskaltegikoak hamabost minutuko saioa prestatzen ari gara Maratoirako. Horretaz gain, agian, Eberesteko proba egitera animatuko naiz. Oraindik ez dut erabaki, baina 40 orduetan hantxe izango naiz.



Iñaki Bocos
Graffitigilea

Graffitilariok mural batean euskarari buruzko graffiti bat egingo dugu. Beno, guk bakarrik ez, beste batzuk brotxa eta bestelako tresnekin margotuko dute. Guk, noski, sprayarekin egingo dugu marrazkitxoren bat.



Haizea Bravo
Ikaslea

Landaberriko bosgarren mailakook Maratoian *Garaziko Herria* abestia kantatuko dugu eta antzerkia ere egingo dugu, baina ez dakit ni paperen bat egiteko aukeratuko nauten, denok parte hartu nahi dugu eta.




Angelines Gomez
Zahar-egoitzakoa

Zahar-egoitzakook ere parte hartuko dugu Maratoian Igandean, goizeko bederatzietan, gimnasiasaio bat egingo dugu. Ondoren, goizeko hamarretatik ordubatera Okendo plazan eskulanak egingo ditugu.

Zer egin behar duzu Euskararen IV. Maratoian laguntzeko


Nire ustez, euskara euskaldunok dugun altxor handiena da. Horregatik, euskaren alde egiten diren gauza guztiak oso garrantzitsuak direla iruditzen zait. Arrazoi horrengatik nik ere parte hartuko dut Maratoian, zer edo zer egin nahi dudalako. Gainera, Euskararen jaialdi honetan joera ideologiko desberdineko jendeak parte hartzea azpimarratzekoa dela uste dut. Izan ere, euskarak banatzeko baino, batzeko funtzioa izan behar du.

Maratoian zer egin behar dugun? Mertzero-familiak, Mertzero helduenok, kantasaio bat egin behar dugu. Entsaioak oso ondo ateratzen ari dira, ea larunbatean nola entzuten den.



Antton Mercero

Oholtzan musikoontzat leku berezia izango da eta 40 ordutan zehar hantxe izango gara giroa berotzen. Musikaren funtzioa ekintza bakoitza indartzea izango da, telebistan azaltzen diren moduko kuinak sartuko ditugu. Adibidez, norbait aurkeztu behar denean musika joko da. Azken batean, musikak telebistan duen funtzio bera izango du.




Iker Telleria

Astoak izeneko txaranga osatu dugu. Herrian beti izan da txaranga sortzeko ideia. Juanjo Mendiluzek, esaterako, betidanik izan zuen txaranga bat sortzeko nahia. Dena den, ez dakigu txaranga horrek jarraipenik izango duen. Oraingoz, behintzat, Maratoirako bakarrik sortu dugu.

Ni, beste batzuk bezala, Maratoirako "kontratatuta" nago. Igandean, irrintzi-erakustaldian hartuko dut parte. Baina, ez hori bakarrik, arratsaldean ere dantzan ibili behar dut herriko kaleetan. Nire lagunei esan diet asteburu horretan ni herritik ez naizela mugituko sekulako jaialdia izango delako eta nik hortxe egon nahi dudalako. Egia esan, oso polita iruditzen zait euskararen inguruan horrelako gauzak antolatzea. Eta horrelakoetan ez zait gustatzen herritik kanpo egotea, herriko giroa bizitzea oso gustukoa dudalako. Gainera, urte osoa daukagu herritik irtetzeko.



Miren Zumeta



Igone Goikoetxea

Kuku-Miku taldeak gauza asko prestatu ditu. Batetik, haurrentzat indioen inguruko tailerra. Indioz mozorrotuko gara, amuletoak egingo ditugu, etab. Ondoren, bazkari indiarra izango da: haurrek ogitartekoa eraman behar dute eta guk edaria jarriko dugu. Bazkalostean, indioen kanpina jartzeko asmoa dugu. Iganderako, goizeko 10:00etatik 14:00etara, haurrentzako tailerrak eta jolasak antolatu ditugu. Arratsaldean, gazte-mobida ere izango da. Ekintza horretan Institutuko gazteen eta Kuku-Mikuko begiraleen aurkako probak izango dira: kirol probak, euskal moda desfilea, karaokea eta animatzaileak.

ARGAZKIAK
quimen
Geltoki, 6 -Tel.: 36 29 85 - LASARTE-ORIA

AUTO-ORIA
Renault agentzia
Kotxe konponketa
Aldakin biltegia
Kotxe salmenta
Iñigo de Loyola, 9 ☎ 36 14 32-36 15 07 LASARTE-ORIA

ALDATZ-EKUA
TABERNA
Blas de Lezo, 4 - ☎ 37 22 96
LASARTE-ORIA

IV. Maratoia Urriaren 26a, larunbata



8:00 • Maratoiaren hasiera:
• Oriako Sorgindantza Okendon.
• Lasarte-Eberest probaren hasiera.

9:00 • Pintatloiaren hasiera.
• Txokolate-jana denontzat.

10:00 • Haurren emanaldiak: abestiak, txisteak, ipuin-kontalariak, dantzak...

13:00 • Haurrentzako tailerrak Kuku-Mikuren eskutik: indioz mozorrotu.

14:00 •Zortzikotearen bazkaria.
•Haurrentzako *indio* bazkaria.

15:00 •Haurrentzako jolasak eta tailerrak.

15:30 laguntzaz. •Jon Braunekin batera indioen irteera txarangaren


• Haurren pilota-partiduak.

17:00 •Takolo, Pirritx eta Porrotxen emanaldia.

18:00 • Haurren dantza-saioa eta erromeria.

18:45 • "Gazte-mobida":
- Kirol-froga
- "Euskal moda lehen, orain eta gero"
- Animatzaileak.
- Euskaraokea.

20:40 • "Harri eta urri" diaporama, herriari begirada bat.





21:00 • **AFARI HERRIKOIA Okendon.**

• Txiskola.

22:30 •**Afalosteko jaialdia.**
•Trikitilariak.
•Euskaldunberriri omenaldia.
•"Behar duzuna, maitasuna!".

Urriaren 27a, Igandea

00:00 • **Herriko artistak:**
- Goizaldeko albistegia.
- Geltokiko lagunen ekitaldia.
- Euskaltegietako taldeen emanaldiak.
- Mertzerotarren ekitaldia.
-"Urrezko neskak".
- Koktel bereziak prestatzea.
- Teo eta Txarles.
-Malabareak, magia eta mimoa.
- Antzerki taldearen emanaldia.
-Folk musika.
- Berezko taldearen ekitaldia.
-"Nork daki non?".



3:00 • Rock kontzertua.

4:00 • Baserrietako ibilalditxoa.

6:00 • Gaueko langileekin elkarrizketa.

7:30 • Gautxorientzako gosaria


8:00 • Diana txistulariekin eta Alboka abesbatzarekin.

9:00 • Zahar egoitzakoen gimnasia.

10:00-14:00 • Haurrentzako tailerrak.
• Herriko artisauen azoka.


10:00 • **Herri Krosa.**

10:15 • Trikitilariak.
11:30 • Pilota-partiduak.
12:00 • Gizon-proba.
12:15 • Baserrien arteko herri-kirol desafioa.
13:10 • Euskal dantzen saioa.
13:40 • Bertsolariak.
• Irrintzi-erakustaldia.
14:30 • Zortzikotearen bazkaria.
15:30 • Mus-txapelketa eta beste karta-jokuak. Xake-partidak.
16:00 • Musika Eskolakoen emanaldiak.
16:30 • Alboka Txikiren emanaldia.
16:45 • Txakurren erakustaldia frontoian.
17:15 • Ile apainketa-saioak.
17:30 • Landaberriko dantzari txikien saioa.
18:10 • Herriko "Astuak" txarangaren bataioa.
18:25 • Trialsin exhibizioa.
18:40 • Euskarazko jotak.
18:50 • Areto-dantzen saioa.
19:20 • Ingurutxoa.
19:35 • Erromeria.



20:00 • **ILUNABAR MEXIKARRA:**
- Afari mexikarra.

21:00 • **Afalostean:**
-Bandoleroak
- "Trentzadun neska"
-"Joxepa behia".
- Joseba Tapia...



23:0 • **Amaiera ekitaldia:**

- Txalaparta.
– Basajaunak lekukoa ekarri.
– Zorionak abestu.
– Erketzen dantzak.
– Albokaren emanaldia.
– Maratoiaren abestia.
– Lasarte-Eberest probaren amaiera.
–Azken hitzak.